

## 2019an Euskadik 29 domina lortu zituen Espainiako Eskola Garaiko Kirol Txapelketeetan

2019an Euskadiko 355 kirolarik parte hartu zuten Espainiako Eskola Garaiko Txapelketeetan, 170 gizonen eta 185 emakumeen, hain zuzen ere.

Euskadiko kirolariek 29 domina irabazi zituzten txapelketa horietan: urrezko 6, zilarrezko 9 eta brontzezko 14.

Parte-hartzaile eta domina kopuruen arteko ratio bat ezarriz gero, ikus dezakegu Euskadi zerrendako zazpigarren postuan legokeela, Katalunia, Madril, Andaluzia, Valentzia, Gaztela eta Leon eta Galiziaren atzetik.

2019an Espainiako Eskola Garaiko Kirol Txapelketeetan parte hartu zuten kirolari gazte eta lortutako dominak, autonomia erkidegoaren arabera			
Autonomia erkidegoa	Parte-hartzaile kopurua	Domina kopurua	Ratioa
Katalunia	447	91	22,0
Madril	603	115	19,1
Andaluzia	494	88	17,8
Valentzia	476	68	14,2
Gaztela eta Leon	450	46	10,2
Galizia	459	46	10,0
Euskadi	355	29	8,2
Aragoi	424	29	6,8
Asturias	440	25	5,7
Murtzia	418	24	5,7
Balear uharteak	384	21	5,5
Kantabria	383	18	4,7
Kanariar uharteak	390	15	3,9
Nafarroa	330	12	3,6
Extremadura	380	13	3,4
Gaztela-Mantxa	413	13	3,2
Errioxa	295	3	1,0
Ratioa honela kalkulatu da: dominen kopurua zati parte-hartzaile kopurua eta horren emaitza bider ehun.			
<i>Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioaren datuak oinarri hartuta</i>			

Bestalde, Euskadiko unibertsitateetan ikasten zuten 118 kirolarik parte hartu zuten Espainiako Unibertsitate txapelketeetan 2019an; parte-hartzaile horien artean 69 gizonen eta 49 emakumeen.

Txapelketa horietan Euskadiko unibertsitateetako kirolariek 12 domina lortu zituzten: urrezko 3, zilarrezko 5 eta brontzeko 4.

Datu hauek Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratu zituen uztailen [Kirol Estatistiken Urtekaria 2020](#) izeneko argitalapenean (gaztelaniaz).